

ZURE BOKATUA

Gure aplikazioa Espainiako erabiltzaileei zuzendutako plataforma da, dieta orekatu eta osasuntsuak eskaintzeko, betiere erabiltzaileen gustuak, helburuak eta elikagai-murrizketak kontuan hartuta. Aplikazioak elikagaien informazio zehatza, kaloria-kalkuluak eta entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditu nutrizionisten eta entrenatzaileen aholkularitzarekin, erabiltzaile bakoitzari egokitutako planak sortuz eta osasun-helburuak kudeatzeko modu erraza eskainiz.

Proiektua arrakastaz garatzeko, supermerkatuen kolaborazioak eta harpidetza-eredua izango ditugu finantziazio-iturri nagusi gisa; horrez gain, erabiltzaileen iritzia eta inteligentzia artifiziaia erabiliko ditugu etengabeko hobekuntzetarako. Aplikazioa ezagutarazteko, marketin-estrategia sendo bat izango dugu, sare sozialak eta publizitate-kanalak baliatuz erabiltzaile gehiago erakartzeko.